

## GOBERNU BATZARRA

2016. 02. 29

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko otsailaren hogeita bederatzian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peón Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Nerea Letamendia Belloso</b>	
<b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	
<b>Idazkaria:</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	2.-Lurreamendi egoitza: urtarrileko kuoten likidazioa.
<b>Kontuhartzailetzako Teknikaria:</b>	3.-Etxebizitza komunitarioa: S.C.k egin duen eskaera.
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	4.-2016ko kiroletako dirulaguntzen oinarriak.
	5.-Akordio markoa Tolosa&Co-rekin eta hitzarmenak.
	6.- Lankidetzaren hitzarmena.
	7.- CIT-TEE: 2016ko hitzarmena.
	8.-Kultur ekimenetarako dirulaguntzen 2016ko oinarriak.
	9.- Gazteria saileko dirulaguntza deialdia.
	10.- Berdintasuneko dirulaguntzak.
	11.- Alur Txiki Auzoa Elkartea.- Urkizu.
	12.- Intxur Auzo Elkartea.- Aldaba.
	13.-48/2015 eta 2/2016 zenbakia duten faktura-zerrendak.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko otsailaren 22an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- lurreamendi egoitza: urtarrileko kuoten likidazioa.**

lurreamendi egoitzak urtarrileko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- lurreamendi egoitzari ordaintzea urtarrileko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **17.621,11 €**-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 649,76 €  
Elbarrien defizita: 16.971,35 €

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

### **3.- Etxebizitza komunitarioa: S.C.kegin duen eskaera.**

S.C. jaunak etxebizitza komunitarioan sartzeko egin duen eskaera dela eta, kasuari dagokion Gizarte Langileak eman duen informazioarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea S.C. jaunak aurkeztu duen eskaera etxebizitza Komunitarioan sartzeko.

**BIGARRENA.**- Hitzarmena sinatzea S.C. jaunarekin.

**HIRUGARRENA.**- S.C. jaunak ordaindu behar duen kopuruetatik, Udalak, hileko, 351,58 € ordaintzea eta datorren urteetan dagokiona.

**LAUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea interesatuari, Kontuhartzaitzari, Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Uzturre zentroko arduradunari.

#### **4.- 2016ko kiroletako dirulaguntzen oinarriak.**

Gobernu Batzar honek, Kirol batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Kiroletako 2016ko dirulaguntzak jasotzeko oinarriak eta eranskinak onartzea eta deialdia, besteak beste, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Dena den, onartutako oinarritan zuzenketa hauek egin beharko dira:

- \* Dirulaguntzak dekretu bidez emango direla adierazi.
- \* Eskola-kiroletan: Txostena aurkezteko eredia erantsi behar da.
- \* Hirugarren eranskinean dirulaguntzen kopurua agertu behar du.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kirol departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

#### **5.- Akordio markoa Tolosa&Co-rekin eta hitzarmenak.**

Tolosa&Co elkarteak eskaera hauek egin ditu: akordio marko bat, merkataritzako teknikari bat eta beraien egoitzarako espazio berri bat, dituzten proiektuak garatzeko.

Bestalde, adierazten da ere, maiatzeko Udal eta Foru Hauteskunde kanpainan agerraldi bat egin zutela Markel Olano eta Tolosako Alkateak Oriaburu eraikinaren aurrean, garapen ekonomikoari lotutako espazio bat izango zela esanez, coworking-networking proiektua garatzeko.

Tolosa&Co elkartearekin sinatzeko prestatu da akordio markoa, Udala eta Tolosa&Co elkartearen arteko lankidetzak adierazten dena, eta, bi hitzarmen: bat lankidetzak-akordio ekonomikoa, non 2016rako Tolosa&Co elkarteak egingo dituen jarduera ezberdinetarako dirulaguntza onartzen dena; eta, bestea, Oriaburu eraikineko lehen solairuko erabilera baimentzen dena.

Tolosa&Co elkarteari txiki gelditu zaio gaur egun Emeterio Arresen duten lokala eta eskaera luzatu zion udalari, eta proiektua ere aurkeztu, urtarrilaren 27an, beste eraikin bat uzteko eskatuz. Hori horrela, Oriaburuko eraikina egokia zela ikusi zen Tolosa&Co elkartearentzat, bai Tolosa erdialdean gelditzen delako, bai merkatarien biltegi moduan erabiltzeko asmoa ere badutenez, zama lanak egiteko duen erreztasunagatik. Bestalde, aurre kanpainan garbi azaldu zen ere eraikin honek garapen ekonomikoari lotutako erabilera izan behar zuela eta, ildo horri jarraituz, egokia ikusi da Tolosa&Co elkarteak lokal hori erabiltzea. Goiko solairuen erabilera oraindik lotu gabe dago.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Merkataritza, Feriak eta Turismo Batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Tolosa&Co elkarteari, 2016. urtean, 26.000€-ko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Onartzea honako hitzarmen hauek onartzea:

\* Lankidetzak akordio markoa

\*Lankidetzak-akordio ekonomikoa.

\* Oriaburu eraikineko lehen solairuko hitzarmena, non aurreikusten den aipatutako lehen solairuko erabilera zesia Tolosa&Co elkarteari.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Tolosa&Co elkarteari.

### 6.- **Lankidetzak hitzarmena**.

Aipatu da Abegik eskaintzen duen zerbitzua interesagarria dela Udalarentzat.

Hori horrela, orain arte Aldundiak dirulaguntzaren bitartez eutsi dio zerbitzuari, baina aurten ez du dirulaguntzarik emango horretarako.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, Gizarte Politikako batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Abegiri, 2016 urtean, 130.800 € ematea eta dirulaguntza arautuko duen hitzarmen ekonomikoa onartzea. Dena den zuzenketa hauek sartu beharko dira hitzarmenean:

\* Lehenengo baldintzan: "...zerbitzuak eskaintzeko "jarri beharrean, "...dirulaguntzak emateko" jarri behar da.

\* Bigarren eranskinean 2015. urteari dagokion aipamena kendu behar da eta 2016. urteko dirulaguntzaren kopurua banatuta agertu behar du kontzeptuak sailkatuz.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

## **7.- CIT-TEE: 2016ko hitzarmena.**

CIT-TEE elkartearekin indarreko urterako hitzarmen berriaren proposamena aurkeztu da. Aurten urte berezia izanik (DSS2016), dirulaguntza kopurua igotzea proposatu da: 80.000 euro ohiko jarduerengatik, gehi 14.000 euro 2016an gauzatuko dituzten ekimen bereziengatik: EMYA, AVIAM eta UNIMAREN Munduko Kongresua Tolosan.

Aurreko hitzarmenetan bezala, udalak 100 orduko erabilera eskubidea izango luke Topic aretoan. Aipatzen da iaz 144 ordu erabili zituela udalak, horietatik 100 dohanekoak, hitzarmenaren arabera, eta gainontzekoak ordainduta.

Gauzak horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- CIT-TEE elkarteari 2016. urtean azalpen zatian adierazitako dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA.**- Onartzea Tolosako Udalaren eta Tolosako Ekinbide Etxearen arteko harremanak arautzeko lankidetzaren hitzarmena.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Tolosako Ekinbide Etxeari.

## **8.- Kultur ekimenetarako dirulaguntzen 2016ko oinarriak.**

Ikusita aurtengo oinarriak iazkoaren errepikapena direla eta Kultura batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Kultura ekintzat eta jarduerak finantzatzeko dirulaguntzen oinarriak onartzea eta deialdia, besteak beste, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Dena den. Oinarrietan zuzenketa hauek egin beharko dira:

\* Dirulaguntzaren kopuru gordina jarri behar da.

\* Bederatzigarren artikuluan esaldi hau kendu egin behar da errepikapena delako: "Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko ziurtagiria, elkarteak erakunde horrekiko zorrik ez daukala adierazten duena".

**BIGARRENA.**- Kultur departamentuko arduradunari ematea.

## **9.- Gazteria saileko dirulaguntza deialdia.**

Bi ildotan banatzen diren gazteriako dirulaguntza deialdiak aurkeztu dira:

\* Tolosako udalerrian gazteen intereseko gaiak garatzeko bertako elkarteei dirulaguntzak emateko oinarriak.

\* Tolosako udalerriko gazte ez elkartuei laguntza emateko oinarriak.

Aurreko urteetatik diferentzia nagusia ondorengoa da: orain arte, dirulaguntza kopuru osoa amaieran ordaintzen zitzairen eta, aurtengoan, %50a aurreratzea jasotzen dute oinarriek.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea lehen aipatutako Gazteriako bi dirulaguntza lerroen oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Dena den, 10. klausulan, bigarren ordainketa egiterakoan, Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko ziurtagiriak aurkeztu behar direla adierazten da.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gazteriko arduradunari.

## **10.- Berdintasuneko dirulaguntzak.**

Tolosako Berdintasun sailarekin batera lan egiten duten bertako irabazi xederik ez duten elkarteei, norgehiagokako erregimen bidez, 2016an, emango zaizkien dirulaguntzak zein baldintzetan eskatu eta jaso ahal izango diren zehazten dituzten oinarriak proposatu dira.

Beraz, Gobernu Batzar honek, Berdintasun Batzordeak proposatutakoarekin bat etorriz, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea 2016ko Tolosako Udalerrian berdintasuna bultzatzen duten bertako elkarteei dirulaguntza emateko oinarriak.

**BIGARRENA.**- Kultura eta Gazteria sailekin batera Berdintasuna dirulaguntzaren oinarriak kaleratzea, iragarkia, besteak beste, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Berdintasuna departamentuari.

## **11.- Alur Txiki Auzoa Elkartea.- Urkizu.**

Tolosako Udalak eta Urkizu eta Auzotxikia auzoetako Alurtxiki auzo elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen 2014ko irailaren 23an, auzoaren garapeneko helburu zerrenda gauzatzeko.

Honen baitan, Gizarte, Kultur, Kirol eta Auzoko jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jarri du Udalak 2016ko Udal aurrekontuetan.

Alur Txiki elkarteak, 2016ko otsailaren 17an, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du, hitzarmenean adierazten den moduan:

\* 2016ko ekintzak.

\* 2016ko aurrekontua.

Gauzak horrela eta Ingurumen teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Alur Txiki Elkarterari 6.000 €-ko dirulaguntza ematea Gizarte, Kirol eta Auzoko jaien jardueretarako.

**BIGARRENA**.- Dirulaguntzaren %50a aurreratzea.

**HIRUGARRENA**.- Adieraztea, dirulaguntza zurtzeko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituela:

\* Urteko ekintzen behin betiko memoria.

\* Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.

\* Fakturak.

\* Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Intxur Elkarteari.

## **12.- Intxur Auzo Elkartea.- Aldaba**

Tolosako Udalak eta Aldaba auzoko Intxur auzo elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen 2014ko urriaren 31n, auzoaren garapeneko helburu zerrenda gauzatzeko.

Honen baitan, Gizarte, Kultur, Kirol eta Auzoko jaien jrduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jarri du Udalak 2016ko Udal aurrekontuetan.

Intxur Elkarteak, 2016ko otsailaren 11n, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du, hitzarmenean adierazten den moduan:

\* 2016ko ekintzak.

\* 2016ko aurrekontua.

Gauzak horrela eta Ingurumen teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Intxur Elkarteari 6.000 €-ko dirulaguntza ematea Gizarte, Kirol eta Auzoko jaien jardueretarako.

**BIGARRENA**.- Dirulaguntzaren %50a aurreratzea.

**HIRUGARRENA**.- Adieraztea Intxur elkarteari, dirulaguntza zuritzeko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituela:

\* Urteko ekintzen behin betiko memoria.

\* Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.

\* Fakturak.

\* Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Intxur Elkarteari.

### **13.-48/2015 eta 2/2016 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **48/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **74.690,85 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**



**LEHENA.**- 48/2015 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **2/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **223.873,19 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- 2/2016 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Jose Luis Unanue Ugalde**